

Donostia, 2018ko martxoaren 6a

HERRERAKO SAIHESBIDEKO TUNELEN INGURUKO MOZIO ARRUNTA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martinek, Udaltzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkeztu nahi du, Herrerako saihesbideko tunelak estaltzeko beharra dela eta, OSOKO BILKURAN azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Urte asko dira Herrera auzoko eragile sozialek eta inguru horretako auzokideek Donostiako saihesbideko bi tunelen ondorioz sortutako hutsuneak estaltzea aldarrikatzen dutela. Tunel horiek Jose Elozegi Alkatea Hiribidearen azpitik igarotzen dira eta portura doan trafikoari bide ematen diote.

Herrerako auzokideek azpimarratzen dute 2008an, duela hamarkada bat, Donostiako saihesbidearen eskuduna den Gipuzkoako Foru Aldundiak esku-hartze hori aztertzeke konpromisoa hartu zuela, Pasaiaiko porturako sarbideak lurperatzeko prestatzen ari ziren planaren baitan. Gunean egiten ari diren lanei erreparatuz, badirudi lurperatzea baztertuta geratu dela, eta ondorioz, posible da Foru Aldundiak auzokideen hutsuneak betetzeko eskaria ere alde batera utzi izana.

2016ko ekainean, Herrerako auzokideek arrazoibideak aurkeztu zizkieten Pasaiaiko portua berrizatzeko proiektuari. Aldarrikapen nagusien artean zegoen saihesbideko hutsuneak estaltzeko beharra; izan ere, bi hutsune horiek zarata sortzen dute inguru horretan eta, ondorioz, nabarmenki kaltetzen dute inguruko eraikinetan bizi diren pertsonen bizitza. Gainera, arriskua ere eragiten dute. Hutsuneak estaltzeak auzoko pertsonen bizitza duintzea ekarriko luke.

Gune horretako erasan akustikoei dagokienez, *“Zarata Mapa Estrategikoa III. Fasea Donostiako Aglomerazioa”* txosteneko emaitzen atalean, Jose Elozegi Alkatearen Hiribidea *“gune kaltetuenen”* artean sailkatuta ageri da eta *“aldi kaltegarriena gaez”* dela azpimarratzen da. Hiribide horretan izan ohi den

trafikoaz gain, kontuan hartu behar da haren azpitik Pasaiako porturako sarbideak igarotzen direla eta, azpimarratzekoa da, arrantza jarduerarekin lotutako trafikoa gauzez biziagoa dela.

Bestalde, 2002ko ekainaren 25eko 2002/49/EE zuzentarauak, giro zarataren ebaluazioari eta kudeaketari buruzkoa, kutsadura akustikoaren inguruko ikusmoldea aldatzea eragin du, haren ondorioz, giro zaratak garrantzia berezia hartu baitu. Hona hemen giro zarataren egungo definizioa: giza jarduerak (garraiobideak eta ibilgailu-, tren- zein hegazkin-trafikoak sortutako zarata barne) eta industria jardueretako eremuek sortutako kanpoko hotsen multzoa, nahi ez dena edota osasunari kalte egiten diona.

Kontzeptu hori erkidego zein estatu mailako legedietara eraman zen, eta hala, kutsadura akustikoak leku garrantzitsu bat eskuratu zuen iraunkortasunaren aldeko borroka beharrezkoan. Udal mailan, 2013ko soinu giroa hobetzeko ekintza planak hainbat jarduera jarri zituen martxan 2013 eta 2018 bitartean. Planean ageri ziren puntuen artean, zatara iturriak administratzen eta kudeatzen zituzten beste agente batzuekin elkarlanean aritzeko beharra aipatzen zen, udalerriko eragin akustikoa arindu nahi bazen.

Hori guztia dela eta, Irabazi Donostia taldeak honakoa azaltzen du:

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Jose Elosegi Hiribidearen azpitik igarotzen den Donostiako saihesbideko hutsuneak bete ditzan, gunee hartako giro zarata arintzeko.

Sin.: Amaia Martin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.